



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua  
Servicio de Viticultura y Enología

## **ARABAKO ERRIOXAKO MAHASTIEN EGOERARI BURUZKO TXOSTENA** **(2015-07-03)**

Neguan prezipitazio ugari izan da, eta horrek lurpean ur erreserba handiak metatzea eragin du. Horrez gain, izozteek ez dute kalterik egin, eta udaberria oso lehorra izan da hasieran, eta euritsua ekaineko lehen egunetan. Horren ondorioz, mahastiak ondo loratu dira, normalean baino 10-12 egun lehenago. Ekain erdialdean, udaberriko lehortearen eragina jasan zuten landareak indarberritu ziren, eta loraldia behar bezala gauzatu zen, aletze arazorik gabe.

Handik aurrera, eta uda hasi zenetik orain arte, eguraldia oso lehorra eta erabat beroa izan da, gaez ere ez da ia tenperatura jaitsi, eta izan diren prezipitazioak oso lokalizatuak izan dira, hala nola, tokiko ekaitzak (zorionez, ez du kazkabarrik bota). Bero kolperen bat izan da mahats mordoetan, eskuarki sufrez tratatu edo orri gehiegi kendu izanaren ondorioz agerian geratu diren zatietan.

Une honetan mahats ugari dago, ale solteak eta mahats mordo luzangak, eta iazkoaren antzeko karga edo beharbada handixeagoa. Nabarmentzekoa da garnatxak oso aletze handia izan duela. Viura barietateak ekoizpen arrunta baino txikixeagoa duela ematen du.

Mahastiaren gaur egungo egoera fenologikoa “K” deritzonaren — ilar neurriko aledun mahats mordoak— eta “J” mahats mordo itxiaren artean dago; garapen ona dauka, eta osasun egoera bikaina.

Izurri eta gaixotasunei dagokienez, aipatzekoak dira honako hauek:

Oidioa edo zurina: kontrolpean dago, eta laster oro har zailena izan ohi den unetik, alegia, mahats mordoak ixteko unetik, irtetear izango da. Tratamendua ematen jarraituko da heldzearen hasierara arte. Itxura batean, emaitza ona lortuko da.

Mildiua edo gorrina: orban oso lokalizaturen bat ikusi da Lantziegon (ekaitz baten ondoren), bai eta zati sentikor edo tratatu gaberen bat ere. Orrietan izan dira halako guztiak. Ez da gorri larbaturik detektatu. Mahastiak babestuta izateko tratamenduak ematen jarraituko da.

Sitsa: ez da ikusi ia bigarren belaunaldiaren eraginik Arabako Errioxan; lehenengo belaunaldiak presentzia handia izan zuen, baina ez zuen kalterik eragin.

Armiarma horia: seinaleren bat ikusi da (gorriuneak orrietan) eta, beraz, kasuren bat tratatu beharko da.

Eltxo berdea: finkaren batean ikusi da intsekturen bat. Ez da gomendagarria tratatzea, tratamendu atalaserira iritsi arte (orriko bi intsektu).

Laburbilduz, mahastiaren egoera, oro har, ona da, eta uzta oparoa izango dela aurreikusten da. Kalitatea nolakoa izango den ezin da ziurtasunez jakin: bero egiten du (bi asteotan hala egin du, eta gutxienez datorren astean ere bero izango dugula ematen du), eta hori guztiz ezohikoa da Arabako Errioxan eta gainerako JDKn.

Oraingoz, uzta aurreratu izanak mahats bilketa ere aurreratzea ekarriko du, baina hemendik aurrera etorriko diren baldintzen mende izango da dena.

Guardia, 2015eko uztailaren 3a